

MUko lau ikasle Triatloiko Txapelketan Valencia-n

2012/05/14

Maiatzaren 12an ospatu zen triatloiko txapelketa hau Universidad Catolica de Valencia-k antolatuta. Honetan parte hartzeko, Kirol Zerbitzuak lehengo aldiz aukeraketa egin behar izan zuen, bederlatzi ikaslek nahi zuten parte hartu, lau leku dauden txapelketan. Beraien esperientzia eta markak ikusita, Eskolako Alex Altunak, Jokin Maguregik eta Gaizka Arizmendiarretak eta Enpresagintzako Mikel Labakak parte hartu zuten.

Maiatzaren 11 ostiralean, goizeko 8:00tan abiatu ziren Valencia-runtz, EHU/UPVko ikasleekin batera autobusean. 8 ordu beranduago heldu ziren txapelketa gunera, bertan partehartzaileen akreditazioa eta zirkuitoa ikusi behar zutelarik.

Txapelketa, maiatzaren 12an eguerdiko 13:00tan zuten, eguraldi onarekin bete zituztelarik igeriketako 750m, bizikletako 23km eta korrikako 5km-ak.

Gure ikasle nahiko parekatuta egon ziren taularen erdialdean bukatuz.

50. postua: Mikel Labaka (Enpresagintza); 01:09:54

52. postua: Alex Altuna (GEP); 01:09:56

58. postua: Jokin Maguregi (GEP); 01:10:21

66. postua: Gaizka Arizmendiarreta (GEP); 01:11:10

Eskerrik asko gure izena beste herrietan zabaltzeagatik.

Datorren urterarte

